



LH-6. MAILA
6. UNITATE DIDAKTIKOA
"Berdintasunez bizi familian"



BERDINTASUNEZ BIZI FAMILIAN-3: PUNTU LILAK, PUNTU ONAK

Idatzi zure izena:



EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO SINBOLOA da PUNTU LILA. Sinbolo hau publikoki erakusteak berarekin dakar emakume eta gizonen arteko berdintasun eza oinarri duen era honetako INDARKERIAREN KONTRAKO KONPROMISO AKTIBOA.

1.-Hona hemen **idea eta jarrera batzuk**. Berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren ikuspuntutik **ARRISKUA** edo **PUNTU LILA** diren idatzi:

JARRERAK, PENTSAMENDUAK, IDEIAK	ARRISKUA	PUNTU LILA
1. Ez naiz laranja erdia, pertsona osoa naiz, eta zu ere bai.		
2. Zeloek maitasuna adierazten dute.		
3. Maitasuna gezikada bat da eta beti min egiten du.		
4. Maite nauenak nire bizitza proiektua gauzatzen lagunduko dit.		
5. Printze urdina eta printzesa arrosa ez dira existitzen.		
6. Bikotearekin hasterakoan, agur lagunak eta dibertsioak.		
7. Giza Eskubideak errespetatu gabe ez dago maitasunik.		
8. Zu gabe ez naiz ezer, zu gabe ezin naiz bizi.		
9. Maitasuna elkarren onarpena, errespetua eta tratu onak dira.		
10. Askatasunik gabe ez dago maitasunik.		

2.- Hona hemen **portaera eta harreman batzuk**. Berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren ikuspuntutik **ARRISKUA** edo **PUNTU LILA** diren idatzi:

PORTAERAK, HARREMANAK	ARRISKUA	PUNTU LILA
1. Ez didazu telefonoa hartu eta asko haserretu naiz.		
2. Zure tontakeriekin nire lagunen aurrean lotsarazten nauzu.		
3. Asko pozten naiz gauzak ondo atera zaizkizulako.		
4. Aurreko lagun eta harreman guztiak mantentzen ditugu biok.		
5. Beti zure gustuko planak eta jarduerak egiten ditugu.		
6. Bion nahiak eta interesak dira garrantzitsuak biontzat.		
7. Nik behar zaitudanean, zu beti zure lagunekin zaude.		
8. Nigatik ez duzu utzi behar. Nik lortzen lagunduko dizut.		
9. Eztabaidak ditugu, elkarrengandik ikasten dugu.		
10. Gu aldatzen goaz, gure harremana aldatzen doa.		

→ Maitasunak askatasuna, berdintasuna eta Giza Eskubideak gauzatzen ditu.